

Jexux Mari Goñi

• Utzi Hernani Pakean plataformako kidea


U mikel lizarralde

2000ko apirilean sortu zen Utzi Hernani Pakean, herrian izandako atxiloketa guztiei aurre egin nahian. Harrezkero, hainbat ekimen landu ditu, eta gazte zein helduen lanak bere fruituak eman ditu. Nolanahi ere, atxiloketek eta auzipetzek eragindako diru kalteei ez diete oraindik buelta eman. Hori dela eta, heldu den larunbaterako, jaialdi erraldoia antolatu du plataformak.

■ Utzi Hernani Pakean plataforma duela bi urte jarri zen abian. Egoera jakin bati erantzuteko sortu zen plataforma?

Plataformak apirilean bete ditu bi urte. 2000. urteko apirilean, Hernani hainbat gazte atxilotu, eta beste hainbat Entzutegi Nazionalera deitu zituzten. Guztira, 39 lagun daude auzipetuak. Atxiloketa horiek eragindako guztiari aurre egin nahian, plataforma sortu zen; salaketa politikoa egiteaz gain, bermeei aurre egiteko beharrezko den dirua bildu nahian. 38 milioi pezetako zulo ekonomiko bat genuen, eta horri nolabait aurre egin behar izan ginen. Herriko hainbat talde eta atxiloturen senideak elkartu, eta guztien artean dirutza hori biltzea lortu genuen; eta geroztik, milioi horiek talde guztiei itzultzea izan da plataformaren

Utzi Hernani Pakean ekimenak kontzertu handia antolatu du larunbaterako. Betagarri, S.A., Sen, Etsaiak eta NCC taldeek joko dute 6.000 lagunentzako lekua duen karpa batean. 39 auzipetzek eragindako kalte ekonomikoari egin nahi dio aurre plataformak.



▲ Jon urbe / argazki press

helburu nagusia. Gaur egun ere, horretan dihardugu.

■ Talde eta pertsona asko bilduzue plataformara?

Plataforma auzipetuek beraien eraman dute aurrera, eta horretan beste adiskide ba-

«Errepresio politikoari kultura sortuz erantzungo diogu»

tzuen laguntza izan dute. Hala, pixkanaka plataforma aurrera atera dugu. Gero, ekimen batzuen aurrean, plataformak beste esparru batzuen laguntza izan du, eta ekitaldiak gauzatu ahal izan ditu.

■ Hernani kriminalizateko ekimen baten barruan ikusten dituzue atxiloketa eta auzipetze horiek guztiak?

Hernani jomuga bat izan da historikoki, eta Euskal Herrian beti izan da erreferentzia bat. Hain zuzen ere, orain dela bi urteko testuinguru politikoan, hau da, PPK EAJri kale borrokaren aurrean ez zuela ezer egiten leporatzen zion garaian, Hernani izan zen Erztaintzaren lehenengo jomuga, eta horren ondorioz, 39 auzipetu daude.

■ Zein egoeratan daude egun 39 lagun horiek?

Baldintzapeko askatasunean daude, baina astero joan behar dute sinatzera, eta epaiketaren zain daude. 1997tik 2000ra bitarteko kaleborroka ekintza guztiak leporatzen dizkiete.

■ Zer nolako ekimenak eraman ditu aurrera orain arte Utzi Hernani Pakean plataformak?

Hasiera batean, bono-laguntzak eta erri-fak atera genituen dirua bildu nahian, eta gerora, bertso saioa, poesia eta antzerki emanaldiak, Benito Lertxundiren

kontzertua eta abar antolatu ditugu. Hernani aldeko musika taldeen abestiak biltzen dituen CD bat ere jarri genuen kalean eta sanjoanetan txosna jarri. Horien guztien artean aipagarriena joan den urtean egin genuen kontzertu erraldoia da. RIP, La Polla, Txapelpunk eta Arriskua taldeek jo zuten, eta 5.000 lagun bildu genituen.

■ Dirua biltzea da Utzi Hernani Pakean plataformaren helburu nagusia. Ari zarete helburu hori betetzten?

Bai; nahiz eta zuloa handia den, apurka-apurka, termometro hori goraka doa. Sukarra 38 gradurekin hartzen da, pixkanaka gradu horiek goraka doaz, eta ekimen hauekin termometroa irakiten jarri arte lanean jarraituko dugu. Hala ere, oraindik falta da pixka bat.

■ Larunbateko jaialdiaren ondoren, zeintzuk izango dira Utzi Hernani Pakean-en hurrengo pausoak?

Igandean atsedean hartuko dugu, eta aurrerantzean etorriko dira beste ekimen batzuk. Azken batean, Jon Maiak bertso saio batean esan zuen bezala, errepresio politikoari kultura sortuz erantzungo diogu.

Jexux Mari Goñi: «38 milioi pezetako zulo

ekonomiko bat genuen, eta horri nolabait aurre

egin behar izan ginen»

Jaialdi erraldoia Hernanin

Joan den urtean RIP, La Polla, Txapelpunk eta Arriskua taldeekin antolatutako jaialdi arrakastatsuen ondoren —5.000 lagun bildu ziren—, Utzi Hernani Pakean ekimenak beste jaialdi erraldoi bat antolatu du larunbaterako. Kontzertua Sagastialde Berri auzoan kokatutako karpa batean egingo da, 21:00etatik aurrera, eta sarrerak 12 euroren truke eskura daitezke —dagoeneko asko saldu dira—.

Jaialdian parte hartuko duten bost talderen izenak konfirmatuta daude, baina Jexux Mari dioenez, «sorpresatxoren bat ere ez da faltako». Iragarritakoari begiratuta, Etsaiak eta Sen disko berriak berobero dituztela iritsiko dira Hernanira. Betagarri eta S.A.k, disko berriak ez; baina, hurrenez hurren, festarako gogoia eta indarra arazo handirik gabe plazaratuko dute. Azkenik, Nuevo Catecismo Catolicok halako jaialdietan sarritan faltan sumatzen diren punk-rock doinuak aurkeztuko ditu.